



## **CORONAVIRUSEN AURKAKO PREBENTZIO NEURRIAK FORUARTXIBO HISTORIKOETAN: GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA ETA GIPUZKOAKO PROBINTZIAKO ARTXIBO HISTORIKOA.**

**2021eko urriaren 6ko Gobernu Kontseiluak COVID-19aren inguruan onartutako neurrien egokitzapena. Normaltasun berria.**

### **A) Zentroetako langile eta erabiltzaileentzako neurri orokorrak:**

- 1. Barruko espazioetan maskara erabiliko da beti**, elikagaiak hartzeko unean izan ezik. Kanpoko espazioetan maskara erabiliko da pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantendu ezin denean. Maskara egunero aldatuko da.
2. Zentrora sartzen diren pertsona guztiek, erabiltzaileek zein zentroko langileek, 1,5 metroko distantzia soziala mantendu **beharko dute nahitaez**. Beharrezkoa izanez gero, lanpostuak birbanatu egingo dira, segurtasun-distantzia hori lortzeko.
- 3. Kutsadurak mugatze aldera, erabiltzaileek eta zentroko langileek higiene-neurriak zorrotz beharko dituzte** beste pertsona batzuei eragiten dieten ekintza guztietan, batez ere; horregatik, eskuak garbitu beharko dituzte dokumentuak (historikoak edo administratiboak) eskatu, entregatu eta jaso aurretik, edo bi pertsona edo gehiago inplikatzeko dituen beste edozein ekintza egin aurretik. Protokolo berari jarraituko zaio, eskularruak erabili arren.
4. Ahalik eta gehien saihestuko da langileen artean eta langileen eta kanpoko kontratan artean era guztietako dokumentu fisikoak trukatzeko, eta lehentasuna emango zaie euskarri digitalei.
5. Eskaileretan arreta berezia jarriko da segurtasun-tarteak gordetzeko.
6. Ohiko garbiketa egingo da. Garbiketako langileek arreta berezia jarriko dute komunetan xaboa eta sekamano-papera egon daitezela. Likido desinfektatzaileak ere emango dituzte, behar diren gainazalak desinfektatzeko.
7. Egunero aireztatuko dira lan eremu komunak, bulegoak eta ikerketa aretoak.

8. Langileek eta zentroetako erabiltzaileek atsedean hartzeko erabiltzen diren erabilera komuneko zonetan, haien artean 1,50 m-ko distantzia sozial bera egongo da; beraz, behar diren txandak antolatu beharko dira.

9. Ahalik eta gehien murriztuko dira lan irteerak eta zentroetako eta ikastetxeetatik kanpoko bilera presentzialak; hala ere, edukiera osoko bilerak egin ahal izango dira, betiere maskara erabiliz.

10. Aireztapen beharturik ez dagoen bilerageletan, sabaian edo hormetan saretak daudelako ikus daitekeenean, bilera amaitzean leihoak irekiko dira aretoa aireatzeko.

11. Gipuzkoako Foru Aldundiari zerbitzuak ematen dizkioten kontratekin koordinatuko da, hartutako neurriei eta eragindako langileen arriskuaren ebaluazioari dagokienez.

## **B) Ikertzaileen geletan espazioak eta fluxuak egokitzeko neurri zehatzak:**

### **B.1. GIPIIZKOAKO ARTXIBO OROKORRA:**

**Ez da beharrezkoa izango aurretiko hitzordu sistema, baina gomendagarria da erabiltzailea erosoago egon dadin, 1,50 metroko distantzia soziala mantentzen jarraitu behar baita, edukiera mugatuz.**

**Harrera-gunean edo Artxiboko beste eremu batzuetan sartu aurretik eta dokumentuen eskaera bete eta erabili aurretik, eskuak garbitu beharko dituzte. Horretarako, eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitzea alde batera utzita, soluzio hidroalkoholikoak emango dira.**

#### **1. Erabiltzaileentzako informazio zerbitzua**

Erabiltzaileak informazioaz arduratzen den teknikariak artatuko ditu Areto Balioaniztunean. Likido desinfektatzailea egongo da, mahaiaren gainazala eta kontsulta-ordenagailuaren teklatura higienizatu ahal izateko, erabiltzaileek elkarren segidan erabiltzen dituzten gainazalen higieua bermatzeko.

## **2. Ikerketa gela**

- Ikerketa gelaren edukiera Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako derrigorrezko 1,50 metroko distantzia soziala errespetatuz sartzen diren pertsonen kopurura egokituko da: ikertzaileen artean bi postu utziko dira libre.
- Erabiltzaileek beren idazketa tresnak erabiliko dituzte.
- Erabiltzaileek beren ekipoak eta baliabide pertsonalak sarera konektatuta erabiliko dituzte ikerketa geletan edo horretarako gaitutako geletan dauden bitartean.

## **3- Dokumentuen kontsultaren fluxua**

- Harrera mahaitik bereizteko leihoa itxita egongo da beti.
- Erabiltzaileak erakusmahaiari utziko du eskabide dokumentua, bere baliabideekin beteta, eta Ikerketa gelara eramango du, segurtasun distantzia mantentzeko.
- Langileak harrerari ez badaude, txirrina joko da.
- Artxiboko langileek eskabidea hartu eta dokumentuak ekarriko dituzte. Dokumentu horiek Ikerketa gelan gordeko dira, hurrengo puntuan adierazten den bezala.
- Erabiltzaile bakoitzak dokumentuetarako gune bikoitza izango du, behar bezala identifikatuta: batean, zentroko langileek eskatutako dokumentazioa utziko dute, eta, bestean, erabiltzaileak dokumentuak kontsultatutakoan utziko ditu. Neurri horrekin, erabiltzaileen eta artxiboko langileen arteko harremana saihesten da.
- Ez da beharrezkoa izango kontsultatutako dokumentuak berrogeialdian egotea.
- Erabiltzaile guztien eskura likido desinfektatzailea jarriko da, kontsulta bakoitzaren ondoren ordenagailu komunetako teklatuak higienizatu ahal izan ditzaten.

### **B.2. GIPUZKOAKO PROBINTZIAKO ARTXIBO HISTORIKOA:**

**Ez da beharrezkoa izango aurretiko hitzordu sistema, baina gomendagarria da erabiltzailea erosoago egon dadin, 1,50 metroko distantzia soziala mantentzen jarraitu behar baita, edukiera mugatuz.**

**Harrera-gunean edo Artxiboko beste eremu batzuetan sartu aurretik eta dokumentuen eskaera bete eta erabili aurretik, eskuak garbitu beharko dituzte. Horretarako, eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitzea alde batera utzita, soluzio hidroalkoholikoak emango dira.**

## **1. Erabiltzaileentzako informazio zerbitzua**

Erabiltzaileen lehen harrera areto nagusiaren ondoko beste gune batera pasatuko da. Espazio horretan wifi konexioa duen ordenagailu eramangarri bat jarriko da. Ordenagailu eramangarrira bigarren pantaila bat estekatuko da, erabiltzaileak erakustaldia langilearen ondoan egon gabe ikus dezan.

## **2. Ikerketa gela**

- Ikerketa gelaren edukiera murriztuko da 1,50 metroko distantzia soziala errespetatzeko. Hamasei postutik 8ra igaroko da. Postuak ez erabiltzeko abisu batekin markatuko dira, baldin eta bitik bat libre geratzen bada.

- Harrera gelan lau mahai jarriko dira ikerketa gelaren edukiera osatzeko.

- Ikerketa gelako erabiltzaileek dituzten bi ordenagailuak Harrera Aretora pasatuko dira, bi metroko distantzia ziurtatu ahal izateko. Likido desinfektatzailea egongo da, kontsultarako ordenagailuaren teklatura eta mahaiaren gainazala higienizatu ahal izateko.

- Erabiltzaileek erabiltzen dituzten bi ordenagailuen ondoan likido desinfektagarri bat egongo da, teklatura edo sagua edozein unetan garbitu ahal izateko.

- Erabiltzaileek beren idazketa tresnak erabiliko dituzte.

- Erabiltzaileek beren ekipoak eta baliabide pertsonalak sarera konektatuta erabiliko dituzte ikerketa geletan edo horretarako gaitutako geletan dauden bitartean.

## **3. Dokumentuen kontsultaren fluxua**

- Ikerketa gelan erakusmahai bat jarriko da erabiltzaileek beren eskabide-orriak utz ditzaten. Kokapenaren arabera, manpara bat jarri ahal izango da erakusmahai honetan.

- Kontsulta fluxua honako hau izango da:

.- Erabiltzaileek kontsulta orria bete eta erakusmahaiaren gainean utziko dute.

.- Erabiltzaileek txirrina jo beharko dute eskaeraren berri emateko.

.- Artxiboko langileek kontsulta orria jasoko dute eta bidalketen bila joango dira.

.- Erabiltzaile bakoitzak bi apalategi espezifiko izango ditu, bata kontsulta-loteak edukitzeko, eta bestea kontsultatutako loteak jasotzen joateko. Kontsultatzen denaren arabera, erabiltzaileak berak pasatuko ditu loteak apalategi batetik bestera. Horrela, erabiltzailearen eta langilearen arteko harremana saihesten da.

-Ez da beharrezkoa izango kontsultatutako dokumentuak berrogeialdian egotea.

Donostia, 2021eko azaroa

Ondare Historiko-artistikoaren eta Artxiboen zerbitzburua